

URTEA 10 ARGAZKITAN (I)

Covida ahazten hasi eta kaleko bulkada berreskuratu zen urtearen lehen erdian

Asier Aiestaran

Urtarrilean oraindik covidak arazo ugari sortu bazituen ere, hilabeteak aurrera joan ahala egoera asko lasaitu zen alde horretatik eta kalean garai bateko estanpak errepikatzen hasi ziren. Izan manifestazio eta aldarrikapenatarako, izan festa giroan murgiltzeko, jendeak kalera irteteko gogo erakutsi zuen. Hemen bildutakoak dira adibide batzuk.

> Pentsiodunak

Euskal Herriko pentsiodunen plataformek euren aldarrikapenak kalean jendarteratzen jarraitu dute. 2022ko urtarri-laren 15ean, astero elkartzen hasi zirenetik laugarren urteurrena bete zuten irudian ikus daitekeen mobilizazio jendetsuarekin, eta 2023an iritsiko den bosgarrena are jendetsuagoa izan liteke.

Baina urteurrenetik harago, askotarikoak izan dira pentsiodunek urtean zehar antolatutako mobilizazioak.

Ekainean pentsiodunen lehen Bizikleta Martxa egin zuten, Donostian hilaren 13an hasi eta 25ean amaituz, eta bidean Euskal Herriko ehunka hiri eta herri zeharkatuz. Eta azaroaren 19an Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan manifestazioak egin zituzten.

Pentsio publiko eta duinak eskatzen dituzte, gutxieneko kopurua 1.080 euroan kokatuz, baita kalitatezko zerbitzu publikoak edo zaintza eredu berri bat ere.



Aritz LOIOLA | FOKU



Aritz LOIOLA | FOKU

> Erika

Agur sonatuen urtea izan da Athleticen, eta denetan aipagarriena Erika Vazquez aurrelari nafarrarena. Iruindarrak 423 partida jokatu erantzi du elastiko gorria, 17 denboraldiko ibilbide aparta sinatuz eta 264 gol sartuz. Hiru aldiz izan zen Ligako txapeldun Athleticekin.

Erikarekin batera, Vanessa Gimbertek ere erretiroa hartu du aurten. Bergararrak 42 urterekin erantzi ditu futboleko botak, eta horietatik 23 eman ditu goi mailan jokatzen. Azken bederatzi urteak Athleti-

cen eman ditu, aurrez Levante, Huelva, Sevilla, Rayo eta Espanyolen jokatu ostean. Gimbert bost Liga eta bost Kopa irabazita agurtu da.

Eta Realarentzat ere urte berezia izan da, emakumezkoen taldeak historian lehen aldiz Txapeldunen Liga jokatzeke txartela eskuratu zuelako. Aurrekanporaketa Bayernen aurka jokatu behar izan zuen eta lan oso txukuna egin arren ligaxkatik kanpo geratu zen. Joaneko partida 0-1 amaitu zen Anoetan eta itzulerakoa, Munichen, 3-1.



> Gure Esku

Uztailaren 2an milaka euskal herritar eta kataluniarrek Piri-
nioetako 300 gailurretik gora
argiztatu zituzten erabakitze-
ko eskubidearen alde. Gure
Esku, ANC, FEEC, Omnium
Cultural eta Artistes de la Re-
publica izan ziren ekintza sin-
bolikoa antolatu zutenak, Hi-
ger eta Creus lurmuturrak
argi-lerro erraldoi batekin lo-
tzeko. Aipatutako gailurreta-
tik 115 egokitu zitzaizkien eus-

kal mendizaleei, eta gainon-
tzekoak kataluniarrei, aurrez
oso gutxitan ikusitako ekital-
di bateratua bultzatuz.
Urtearen hondarrean, “Itsa-
sargia” eztabaida herritarra ja-
rri du martxan Gure Eskuk,
datozen urteetarako norabi-
dea adosteko asmoz. 2023ko
apirilaren 22an, esaterako, Na-
zioarteko Konferentzia antola-
tu dute Ficoban hamargarren
urteurrenarekin bat eginez.



Andoni CANELLADA | FOKU

> Pello Zabala

Otsailaren 2an hil zen Pello
Zabala fraide frantziskotarra
78 urte zituela. Idazle eta me-
teorologo lanetan ere aski
ezaguna, hainbat komunika-
bidetan zabaldu zuen bere ja-
kintza aberatsa, GARAn ere
bai, noski. Ehunka lagunek
agurtu zuten Arantzazun.



Andoni CANELLADA | FOKU

> Asier Martinez

Aurreko urteetan sekulako
emaitzak lortuak zituen
arren, 2021ean Tokioko Jokoe-
tan sinatutako seigarren
postua esaterako, 2022a izan
da Asier Martinez atleta nafa-
rra ezbairik gabe munduko
izar nagusiekin parez pare ko-
katu duena. Lehen abixua
martxoan Belgradon jokatu
zen Pista Estaliko Munduko
Txapelketan eman zuen, lau-
garren postuan amaituz. Bai-
na lehen kolpea uztailan iri-
tsi zen, Eugene (Oregon, AEB)
hirian jokaturako Munduko

Txapelketan. Asier Martine-
zek brontzezko domina iraba-
zi zuen, Grant Holloway eta
Trey Cunningham estatuba-
tuarren atzetik sailkatuz,
13.17ko marka bikainarekin.
Eta bigarren kolpea ez zen txi-
kiagoa izan, abuztuan Muni-
chen Europako txapeldun
izan baitzen Pascal Martinot-
Lagarde eta Just Kwaou-Mat-
hey frantsesak menderatuz
eta oraingoz bere markarik
onena dena lortuz: 13.14. Seku-
lako ongietorria jaso zuen
Martinezek Iruñean.



Jagoba MANTEROLA | FOKU

> Elkano

2022an 500 urte bete dira
Juan Sebastian Elkanok mun-
duari lehen aldiz bira eman
zionetik, eta urteurren boro-
bila irailaren 6an ospatu zen.
Getarian lau urtetik behin an-
tzezten den Elkanoren Leho-
rreratzeak ekitaldi berezi eta
jendetsua bizi izan zuen, Eus-
kal Autonomia Erkidegoan
jaieguna izan zela baliatuz.
Baina ospakizun horiekin
batera, urteurrenak Elkanoren
inguruko irakurketa berri eta
desberdinak egiteko balio izan
zuen. Zenbait ahotsek garai
hartan egin ziren hainbat

gehiegikeria ezagutarazi, sala-
tu eta lehen lerrora ekartzeko
beharra nabarmendu zuten;
beste batzuek garaian garaiko
testuingurua ulertu beharra
dagoela defendatzen dute eta
1522an gertatutakoak gaur
egungo balioetatik epaitzeak
ez duela inolako zentzurik.
Eztabaida interesgarri horie-
kin batera, Euskal Herriak his-
torikoki itsasoarekin izan
duen harreman estua azter-
tzeko eta gogoratzeko balio
izan zuen urteurrenak, Elkano
Fundazioa edo Alabaola bezala-
ko erakundeen eskutik.



Andoni CANELLADA | FOKU